

Hiru arratiarrek hartuko dabe parte Bizkaiko Bertsolari Txapelketan

12. orrialdea

Eskean Kristök bere bigarren diskoa kaleratu dau

Ezkurrik onenak izenpean sei abesti luze batzean ditu disko barriak. Abestiak indartsuak dira eta ondo landutakoak. Kokein taldeko Zaloe Urainek, Areatzako Vicent Zaragoza eta Asier Garcia musikariak eta Luis Iruarizaga Abesbatzak kolaborazioak egiten ditue disko honetan. 12. orrialdea



Gorospa anaia alkarrizketea motorren gainean

11. orrialdea

begitu

TOKIKOM

arratia ubide zeberio

250

2016ko apirilaren 18a
hamabostekaria
www.begitu.org


Herri galdeketarako itauna aurkeztu dabe Diman

Euskal estatu burujabe bateko herritarra izan gura dozu? izango da Diman egingo dan herri galdeketako itauna. Alkarregaz gure Esku Dago alkarteak aurkeztu

eban jentaurrean apirilaren 8an. Herri galdeketak bagilaren 19rako dago aurreikusita, baina hauteskunderik balego, eguna aldatuko da. 5. orrialdea



Sahara



Mariam Abdi, Begoña Barroeta, Ane Goienetxe eta Rut Rodriguez Lemoakoak 9 egun egon dira Tindufen, Saharako errefujiaduen kanpaleketan. Etxeetan, ospitalean eta eskolan egon

dira hango egunerokotasuneko egoera zein egoera politikoa hurretik ezetuten. Biaje honetako kronika, herritar bateri alkarrizketea eta argazkiak dakarrez BEGITUko orrialdeotara. 8. eta 9. orrialdeak

ARRATIA

Arratiako Andren Jabekuntza Eskolea

Andren Jabekuntza Eskolen jardunaldian, Arratia eta Zeberioko andrak batu ziran beste eskolen barri jakiteko eta Arratiakoa mar txan ipinteko. Apirilaren 16an izan zan Igorren eta bertan Norma Vazquez formatzailea, Rosa Baltar Ondarroako Bardintasun Teknikaria eta jabekuntza eskoletako ikasle bi egon ziran.

Eskolea sortzeako prozesuan orain arte Arratiako udalak, Mankomunidadeak eta andra alkarte eta talde feministen sareak parte hartu badabe be, interesa daukien andra guztiak parte hartzera konbidau ebazan Mankomunidadeko Bardintasun teknikariak.

Jabekuntza Eskolen helburua andren partaidetza sozial eta politikoa indartzea da. 7. orrialdea

DIMA

Jentilak Diman 2016, hilaren 23an

Bigarrenez Jentilak Diman ikuskizuna antzetzuko dabe dimoztarrak. Apirilaren 23an izango da eta egun osoko programea prestatu dabe egun horretarako. Dana dala, duda barik, ikuskizuna bera izango da ekintzarik indartsuena eta deigarriena. Gaubeko hamarretan hasiko da herriak kalejireia egin ostean. Sarrerak salgai dagoz eta igaz jentea sartu ezinik geratu zanez, denporaz erosteko gomendatzen dabe antolatzaileak. 7. orrialdea

ARTEA

Herriko Bentaren adjudikazioa eta lanpostu bi onartu ditu Udalak

Herriko Benta taberna, jatetxe, ostatu eta etxebizitzaren 15 urteko lizitazioa, maiatzean amaituko da eta Arteako Udalak hurrengo sei urterako adjudikazioa egingo dau. Herriko eraikin publiko, kale, azera eta arketen mantenu lanetarako eta kaleen garbitasuna, jardin eta bideen mantenturako lanpostuetarako pliegoak be onartu ditu. 5. eta 6. orrialdeak



HERRIKO BENTA

ARTEAKO UDALA 

• TABERNEA • JATETXEA • OSTATUA • ETXEBIZITZA

Sei urte, gehi beste lau urte luzatzeko aukereagaz

• Proiektuak aurkezteko atzen eguna BAOan argitaratzen danetik 20 egunera

• Pliegoak www.artea-udala.org helbidean dagoz

Herriko Bentaren alokairu eta kudeaketarako lehiaketa publikoa

ARRATIA ZURI-BALTZEAN

ELEUTERIEN TXABOLEA (I)

Eleuterioren txabolea mendiko ostatu moduan zabaldu zan Egiriñaon, Gorbeian. Gaur egun hainbat erroka entzuten dogu Gorbeiaiko Parke Naturala dala eta: inguru-mentea jagoteaz batera Gorbeialdea bultzatu egin behar dala, turismoa tresna interesgarria izan daitekela... Baina ez daigun pentsatu turismoa, eta batez be mendizaletasunean oinarritutako turismoa, gauza barria danik Arratia aldean, jadanik 1920. urtearen inguruan Eleuterio Goikoetxea zeanuriztarra arlo honetan jo eta ke ebilen eta.

XX. gizaldiaren hasieran mendizaletasuna hartzean egoan indarraz konturatuta, zaletasun horren inguruan bizimodua aurrrera aterateko aukerea ikusi eban Eleuterio Goikoetxeak, eta mendiko ostatuta izango dan

txabolea eregi eta 1922ko garagarriaren 9an inauguratu eban Egiriñaon. 1926. urtean Mendi Federakundea argitaratzen hasi zan "Pyrenaica" aldizkariaren lehenengo alean honako iragar-ki hau azaltzen zan: "Refugio alpino del Gorbea (1.200 m.) (pensionado completo). Primera hostería alpina en la Región Vasca. Dormitorios generales, literas sueltas y habitaciones separadas. Considerables rebajas en concurrencias numerosas. Domingos y festivos, misa en la gruta anexa. Pídanse catálogos: Propietario, Eleuterio Goicoechea. Ceanuri (Vizcaya)".

Sasoi haretan, Euskal Herriko txoko desbardinatetik mendizale ugari hurreratzen zan Gorbeia; gainera, kontuan izan behar da

era honetako urtekerak egiten ebazan jentea goi mailakoa zala, hau da, posibilitate ekonomiko handiak eukazana. Mendizale horreei Gorbeian egunak igarotzeko aukerea eskeintzen eutsen Eleuterioren txaboleak: babes, janaria eta ohea. José P. De Duñabestia y Menchacak, federakundeko lehen zenbakidun bazkideak zera inoan: "Gaur egun, Egiriñaoko txabola-ostatuari esker, Gorbeian egun batzuk egotea oso atsegina eta eroso da, janaria eroateaz eta gaua pasetako legorra bilatzeaz ez zara arduratu behar eta".

Txabolea barriztatua eta handitu egin eben 1927an, eta Antonio Ferrer-ek urte berean argitaratutako *Nuestras Montañas* liburuan azaltzen dauenez honako itxurea erakusten eban: "txaboleak kurtze itxurea agertzen dau eta honako zerbitzuak eskeintzen dauz: 16 ohe mendizaleentzat eta bes-



Eleuterioren txabolea 1922an, inauguratu zan urtean (Ojanguren-argazkia).

te 4 Diputazinokozat, jantokia, suitea eta beheko-sua; tuberia baten bitartez Lekuotzeko iturritik ekarritako ur edangarria eukiteaz

gainera, dutxatzeko gela bat be badauka, eskusaua eta lababoa-gaz".

Jon Urutxurtu

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara
Aprilaren 18tik 24ra
Rodríguez Martínez, Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara

Iruarrizaga. Amorebieta-Etxano.
Aprilaren 25etik maiatzaren 1era
Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22

22:00etatik 09:00etara

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.
Maiatzaren 2tik 8ra
Rodríguez Martínez, Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara

Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.
Zeberioak ez dau guardiarik egiten.
Urte osoan
22:00etatik 09:00etara
Lucía Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89
Artea: 94 673 92 11
Areatza: 94 631 71 52
Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63
Lemoa: 94 631 31 16
Ubide: 945 45 03 61
Zeanuri: 94 673 91 49
Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89
Artea: 94 673 92 05
Areatza: 94 673 90 10
Bedia: 94 631 42 00
Dima: 94 631 57 25
Igorre: 94 631 53 84
Lemoa: 94 631 30 05
Ubide: 945 45 03 22
Zeanuri: 94 673 91 46
Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15
Gorbeialde
94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79
Igorreko Kultur Etxea
94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo
Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.
Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.
Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.
Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.
Orduro: 05:45etik 21:45era.
Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.
Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean Galdakaoraino.
Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.
Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.
Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,
Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.
Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.
Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.
Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Arriorriaga

Arteatik urtekerak lanegun eta zapatuetan 06:55ean eta 13:55ean.
Jaiegunetan ez dago zerbitzurik ez.

Zeberio-Arriorriaga

Lanegun eta zapatuetan 07:10, 08:10, 09:10, 11:10, 14:10, 15:10, 16:10, 18:10, 19:10, 20:10

Jai egunetan 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arriorriaga-Zeberio-Artea

Arriorriagatik 12:40ean urtetan dan zerbitzua Arteaoraino heltzean da lanegun eta zapatuetan.
Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Arriorriaga-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan, 07:40, 08:40, 10:40, 12:40, 14:40, 15:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40.
Jai egunetan, 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union* 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz
Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioakoak 16:00etan.
Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.
Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean.
Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.
Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.

Babesleak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAIA
Hizkuntza Politikako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Vicesecretaría de Política Lingüística



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.
Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.
Telefonoa: 94 631 73 14.
Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com
Webgunea: www.begitu.org
Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga.
Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.
Erredakzino taldea: Irati Urien.
Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.
Publizidadea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.
Banaketea: Marta Rodríguez, Pablo Rodríguez eta Rut Rodríguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Esti Olibares, Igor Perez eta Azibar Sagarna (Igorre) eta Ainhua Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).
Tiradea: 7.000 ale.
Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazioak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri-gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkartea

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48.142 Artea

Edo, helbide elektronikoko honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Berakatza



Janariak onduteko gure gastronomiak aspalditik erabiltzen dauan ortuaria da berakatza (berákatza, agoskatuta). Batuaz, baratxuri esaten da. Berakatza ortuan euki gura badoguz, zemendia izaten da, hain zuzen be, sartzeako sasoi: Arimen Egunaren bueltan (Domu Santu hurrengo egunean), tradizioak marketan dauan moduan, lurrean egiten dan txorkoan ipinten da berakatza-buru, berakatza-kainea edo berakatza-lakatza (hiru erataria jasoa Arratian), gero sanjuanetan aterateko.

ERETXIA

Liburutegitxoak

Gitxi dira, gero eta gitxiago, Arratiako eta Euskal Herriko herri txikitako liburutegiak. Liburuzainok harkadadak daroaguz lehian herritarrak liburutegiakazko daukien irudi txarraren kontra, bai eta aurrekontuen, baliabidearen eta ordutegien urritasunaren aurka. Gabezia horreek liburutegiko benetako eginkizuna eta zentzua herritarrai azaltzea galarazoten deuskue.

Edozein herriko biztanle gehienak liburutegiak leku itxi edota liburu biltegiaren moduan hautematen ditue. Leku ilun eta isilak dira, non gizon/andra jakintsuak eta ikasle kementsuak besterik ez dira ausartzen. Leku bat non zaintzaile batek, liburuzainak, ordena, bakea eta isiltasuna kontrolatan ditu, Kultur Zaharraren Tenpluaren antzeko zerbaist dala pentsauz. Irudi horrek jentearen mesfidantzea eragiten dau, eta ohizko irakurle izanda be ez dira liburutegiraino hurreratuko.

BEGITUK emondako aukera hau aprobeitxau gura dot guztioi gogorazoteko liburuzainak ez garala gurasoak, ezta irakasleak edo nagusiak be. Begirada bat botaten dogunean, entzuten dogunean, zeozertaz erreparatzen dogunean, irakurle edo erabiltzaileen atsekabeak konponduteko edo zuzentzeko, irakurgaien bilaketan bideratzeko eta -gure aurrekontuak eta baliabideak ixten deuskuen neurrian- bere beharrai moldatzeko besterik ez dogula egiten.

Edozein herri txikitako liburutegi publikoaren funtsezko betebeharrak dibulgazioa eta erabiltzaile guztiai zerbitzua emotea dira. Liburuzainok irakurlearen preminen aurrean erne gagoz, saiatzen gara, liburutegia moldatuz, premia horreek beteten.

Horretarako liburutegiari erabilera anitzak emoten deusaguz, badakigulako ezin dirala irakurteko edo liburuak maileguan hartzeako eraikin itxiak izan. Gehien kezkatzen gaituan erabiltzailea gustu-



TOMAS ANGEL ROTAETXE ITURRATE

Arantzazuko Udal Liburutegiko arduraduna

ra ez dagoana edo liburutegira hurreratzen ez dana da. Badakigu irakurleak bere aukeraketak egingo dituen, bere lehentasun eta erispideen arabera. Ez dira seme-alabak, ez dira ikasleak, herritarrak dira.

Gitxi gara bai, eta baliabide eskasekoak, baina gure erabiltzaileak asetzen saiatzen gara. Ordenagailuak, teknologia barriak, zinea, musika, jokoak, umeak, gazteak, helduak, adintsuak... badaukie euren lekua gure liburutegietan. Bere izanak ez leuke zentzu handirik izango eurak barik. Baina liburu barik ez leuke inongo zentzurik izango. Liburuak, bai, gaur egun mehatxatuta dagozan objektu horreek, teknologia barriaren menpe geratu diran tramankulu zaharkitu horreek, askorentzako desageretzeko zorian dagoz. Bai? Liburuzainak badakigu hori ez dana gertatuko ze Borgesek, idazle argentinarra eta liburuzainak be, esan eban moduan: "Gizakiak zorionsuak izateko emondako aukera bat liburuak dira".

Liburu Eguna bertan dago. Anima zaitetz eta hurreratu zaitetz herriko liburutegira, begiztatu, dastatu, gozatu egizu, eta zure herrian ez badago... eskatu, exijidu. Gauza gitxi emoten dabe hainbeste musutruk. Dan-dana liburuetan dago.

LUMATUTEN

MAITE ARTABE
URKIRIBildur bako
gunea

Zapatuan Gasteizen hirulau lekutan une berean egoteko kapaza izan gurako neban. Hain egoan giro aparta alde guztietan! Reageton-a, muralgileak, perkusinoa, performance-ak, kalejirak, kontzertuak...

Prest gagozala argi geratu zan apirilaren 9ko manifestazioan. Prest egoteaz aparte asko gara be argi geratu zan eta daretarik gagozala mobimentu feministearen barruan be bai.

Aniztasun hori gustuko dot, sano; Uxue Alberdik bere kantantaitututen dituan baino andra modu gehiago gengoan han...konplize ditut eta, maite ditut denak... eta gizonak be hainbat etorri ziran gugaz batera.

Umorea ez zan falta eta errebindikazinerik be ez. Esaldi eta lelo apurtzaile bezain umoretsuak hainbat ikusi ta ohikatu genduzan; baina atenzinoa emon eustan barriro be gure artean komentatuena izan zana

betiko lelo bat izatea. Argazkia be atera eutsan Sarak. Gainera manifestazioaren muinagaz beragaz bete-betea bat egiten ebana: "Etxerako bidean ez dot balientea izan gura, librea izan gura dot".

Biolentziak sortzean dauan bildurraren kontra egin gura dau esaldiak. Biolentzia estrukturala dala be adierazo gura dau eta hainbat arpegi dituan biolentzia horrek zuzenean jotzen gaituala androk eta oso barneratuta daukagun bildurra sortzean deuskula. Eta bildurrak kikildu, gitxitu. Kolpean ulertu genduan esaldia danok, ez eban azaldu beharrik izan. Andra guztiok ikusi, ikasi eta sentidutakoa da. Danok. Ondo laburbiltzen dau, bai, kontzeptu hori andrakanako biolentziaren kontrako ekimeneko esloganak be: Beldur barik, dino.

Etxean, kalean, beharrea, jaietan, mendian, gure bizitzako bideetan ez dogu balienteak izan gura, bildur bakoak, libreak izan gura dogu.

Zapatuan Gasteizen ezelango bildur bako gunea sortu genduan danon artean eta horixe izan zan sentiduten genduan pozaren, festarako gogoaren eta *rollo* onaren errazoi nagusia; duda barik.

ZERTZEAN



AINHOA MENDIA




BEGI TXINDORRA

Ausentzia ala presentzia, zer adierazoten ete dabe norberaren gauzak? Lekua gordetzeko erabilten doguz, gure presentzia ordezkatzeko. Ez gagozanean, hemen neu nago esateko.

Maite dogun baten bat joan danean, bere gauzak, mila oroitzapen, barriketaldi eta sentimentu ekarten deuskue gogora, presente egiten dabe zeozelan; baina aldi berean, ez dagoala nabarmendu.

Gauza bera ete dira ausentzia eta presentzia? Ikuspuntu kontua? Erdi hutsik edo erdi beteta dagoan botila bat? Eta bakardadea zer ete da? Baten bat ondoan ez eukitea ala eukitea?

Hemen nago esatea gauza handia ez balitz moduan!



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalejatu Zerbateko 101
R.P.S. 21/06

OPEL
Ibaigane, S. Coop. Ltda.
Estatuoa, 15
48330 LEMDA (Bizkaia)
Tels. 631 33 30 - 631 31 31
Fax 631 36 15

GARANTXE
Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ
ZEIN ERDARAZ
Balonak: A1, A, BTP, B
Lehendakari Agirre 31
Tels.: 94 673 71 32
48140 IGOME (Bizkaia)
garantxe@evokabnet.net

DIMA

Herri galdeketarako itauna aurkeztu dau Alkarregaz Gure Esku Dagok



Dimako ekitaldia.

Euskal estatu burujabe bateko herritar izan gura dozu? Horixe da Dimako Alkarregaz Gure Esku Dago alkarteak dimoztarrai egingo deutesen itauna. Alkartekoak apirilaren 8an, itauna, itauna egiteko prozedura eta sinadura bilketearen barri emon eben jenteurreko ekitaldi baten.

Erredakzioa

Itauna zein izango dan ebazteko bilera ugari egin dira; lehenengotik alkarteak osotuten daben kideen artean, eta gero herritar guztia zabalduko ekimen baten. Alkarteko kideak GEDren Formazio taldearen laguntza jaso eben prozesua hasterako orduan.

Herritarraz egindako ekimenean, partaideak berba batzuen artean aukeratu egin behar izan eben itaun egokiena aukeratu teko. Dinamika honek 22 lagun batu ebazan eta galdera bat nagusitu zan beste guztien gainetik. Dana dala, lau galdera bozkatuenakaz internet bidez hausnarketarako beste epe bat zabaldu eben Alkarregaz Gure Esku Dagokoak. Bigarren prozesu honetan 56 lagunek hartu eben parte eta kasu honetan bigarren galdera batek be hartu eban indarra.

Estadu burujabe ala estadu independente

Konsultaren subjektuari jagokonean eretxi bateratu egin zan. Hau da, gehienak konsulta herritarri jagokiela ebatzi eben. Diferentziak "estadu burujabe" edo "independiente" aukeratu teko orduan agertu ziran. "Ekimen presentzialan, burujabetasunaren alde agertu zan gehiengo, internet bidez egindako galdeketa

ordea, independentziaren alde. Gauzak holan, gehiengoaren borondatea errespetetea ezinbestekoa zan, baina lau orduko hausnarketa baten ateratako emoitzak zelantzeko indarra euki behar ebala be pentsatu genduan. Ondorioz Diman bozkatuko dan itauna honako hau izango da: Euskal estatu burujabe bateko herritar izan gura dozu?" azaldu eban Itziar Esparta komunikazio arduradunak.

Hasikera baten herri galdeketa egiteko eguna bagilaren 19rako aurreikusita egoan arren, data hori aldatu egingo da bagilean hauteskunderik egon ezker. Izan be, aurreanpain eta kanpain politikoetan ezin dira holango galdeketa egin.

Sinadura bilketak babes handia

Sinadura bilketeari jagokonean, hau da, herritarrek konsultari emondako babesari jagokonean, 360 sinadura bildu dira, biztanleen % 25a. Zezeilaren 25, 26 eta 27an alkartearen lokala zabaldu zan sinadurak jasoteko eta egun horretan 240 sinadura inguru jaso ziran. Ondoren beste epe bat zabaldu zan astegoen haretan hurreratzeko aukera izan ez ebenai sinatzeko aukera emoteko, eta guztira, 360 biztanlek sinatu dabe.

ARTEA

Herriaren mantenurako lanpostua sortuko dau lehenengo aldiz Udalak

Lanpostu bi sortuko ditu Arteako Udalak. Bata, lehendik baegoana, eraikin, kale, azera eta arketen mantenu lanetarako; eta bestea, barria dana, herriaren mantenu orokorrerako.



Erredakzioa

Eskeintza sei hilabetekoa izango da, beste lau urtez luzatuteko aukereagaz. Pliegoakaz, Udalak "enpresak langileen soldata bajeun eta kontratu prekarioen

kontura aberastea ekidin gura dau, langileen lan baldintzak zainduz".

Langileak kontratuan gitxienez 22.000 euroko soldata gordina eta 30 ordu asteko eukiko dabe. Urgentziako lan bat izatekotan, langileak Arteako Udalan egon beharko dira 20 minutuko epean eta herritarraz euskeraz zein gaztelaniaz berba egiteko gaitasuna eskatzen da. Horretarako, urtebeteko epea emongo jakie beharginai euskera ikasteko.

Arlo ekonomikoari jagokonean 27.000 eurotik 30.000 euro arteko eskeintzak puntuauko dira.

Pliegoak Arteako Udalaren webgunean dagoz eta proiektuak aurkezteko azken eguna, BAO argitaratzen danetik 20 egunera izango da.

ZEANURI

Zortzi herritako jantzariak batuko dira Zeanuriko I. Dantzari Egunean



Erredakzioa

Apirilaren 29an Nazioarteko Jantza Eguna dala eta, hurrengo egunerako Dantzari Eguna antolatu dabe Zeanurik. Aurten alkarte bat sortu da, jantza inguruan modudun diran herritarrek batzeko asmoz; Arrikibar Dantza Elkarte, hain zuzen be. Dantzari Eguna antolatuteak proiektua bistartzen lagunduko dauala uste dabe alkartekoak.

Alardea 12:00etan izango da herriko plazan, eurria bada frontoian. Aurretik kalejirea egongo

da eta alardearen ostean bazkaria frontoian. Arrastian erromeria eta tailerrak be egongo dira jai egunari amaierara emoteko.

Dantzari Eguna berreskuratzen

Orain dala 20 urte inguru Arrikibar jantza taldea sortu zan eta sortzeagaz batera Dantzari Eguna egin eben. Aurten sortutako alkartari be Arrikibar izena ipini deutesie eta barriro be, Dantzari Eguna ospatuko dabe. Egun horretan, Zornotza, Usansolo, Bedia, Igorre, Dima, Artea, Areatza eta Zeanuriko jantza taldeak batuko dira, 200 jantzari

ARRATIA

Gizonentzako Guneak lehenengo batzarra egingo dau Areatzan

Erredakzioa

Arratiako Udalen Mankomunitateak, udalakaz batera, Arratiako Gizonentzako Gunea antolatu gura dau eta urteko programazioa zehaztu. Hori dala eta, lehen batzarra deitu dabe apirilaren 26rako Areatzako Udaletxean arrastiko seiretan. Batzar horretan saio egun eta lekuak zehaztuko dira.

Gunea, andren eta gizonen berdintasuna zer dan eta arlo personalean, sozialean eta profesionalean berdintasunaren alde zer egin leikien jakin nahi dabenentzat da; horren gaineko prestakuntza jaso edo horretan sakondu gura dabenentzat, hain zuzen. Hori guztia, andra eta gizonen berdintasunaren aldeko aldaketa soziala sustatuko daben eragile izan daitezcan.

Urteak daroaz Bardintasan Zerbitzuak Emakundegaz batera, Arratian Gizonduz programea antolatzen.

inguru antolatzaileen esanetan. Jantzariez gainera, taldeetako musikariak, Zeanuriko txistulariak, trikitilariak eta panderojoleak egongo dira animazioa ipinten. "Aukera polita izan daiteke herrian eta Arratian jantzeari bultzadea emoteko" dino Edorta Alonso antolatzaileak.

Euskal jantzak herrian proiektu erakargarri eta zabala izatea gura dabe eta gazteak jantzarako berreskuratzeko beharrea dabil. Zezeilatik, 12 gazte osotutako taldea sortu dabe. Gainera, herrian dabizen jantzariek, musikariak, jostunak eta interesata edo laguntzeko prest dagozan persona guztiakaz alkartu, eta urtean zehar, jantzetarako momentu garrantzitsuak eskeini gura dabez alkartekoak.

Jantzak jentea batu

Jantzak bizitari eusten lagunduten deutesala da Zeanuriko jantza alkarte honen filosofia. "Batu egiten gaitu neska-mutilak, andra-gizonak, umeak, gazteak, nagusiak, zaharrak... Eta alkarrengandik ikasi eta alkarreri erakusten deutesagu" dinoe.

ARTEA

Herriko Bentaren esleipena egitean, arlo sozial eta kulturalak izango dau lehentasuna

Erredakzioa

Arteko Herriko Benta taberna, jatetxe, ostatu eta etxebizitzaren 15 urteko lizitazioa, maiatzean amaituko da eta aprilaren 12ko Osoko Batzarrean, Udalak sei urterako eskeintza egitea onartu eban, beste lau urtez luzatzeko aukereagaz. Adjudikazioa egite-rakoan, proiektuaren arlo sozial eta kulturala, ekonomikoaren aurretik lehenetsiko da, eta Udalak

beharrizana ikusi ezker, Herriko Bentako ostatura emergentzia sozialeko etxebizitza moduan erabili ahal izango dau. Pliegoak Arteko Udalaren webgunean dagoz eta proiektuak aurkezteko atzen eguna BAOan argitaratzen danetik 20 egunera izango da.

Herriko Benta eraikin publikoa danez, Eusko Jaurlaritzaren kontratazino legeari lotuta dago. Hori dala eta, lanen eskeintza publiko eta zabala izan behar da.



Herriko Benta.

Hau da, edozein persona fisiko nahiz juridiko aurkeztu daiteke, eta Arteko izatea ezin da puntuatu, bardintasun printzipioak ez daualako ixten. Interesatuak gutunazal zarratuetan aurkeztuko

dabez euren proiektuak, izen eta abizen barik, eta teknikoak balorauko dabe proiektu bakotxaren puntuazinoa.

Baldintza sozialak

Herriko Benta ustiatzeko soldata justuak eskeintzea eta euskeraz jakitea derrigorrezkoak izango dira. Gitxieneko soldatea Bizkaiko ostalaritza konbenioan oinarrituko da, eta bezeroak euskeraz zein gaztelaraz hartu-emonak izateko gaitasuna eskatzen da. "Euskeraz ez dakienak urtebeteko epea dauka ikasteko. Artean erroldatuta badago, % 100eko diru laguntzea dauka horretarako" azaldu deutso BEGURI Igor Etxaniz Arteko alkateak.

Gainera, puntuagarriak izango dira kultura ekintzen dinamizazioa, gastronomia, lehen sektorea bultzatzea eta kontratauko diran

langileak. Hau da, kontuan izango dira antolatzen diran ekintza kulturalen kopurua, tabernako barran eskeintzen diran pintxoak, produktu ekologikoak edota Arratiako ekoizleen produktuak konsumidutea eta lanaldi osoan edo erdian kontratautako langile kopurua.

Urteko kuota merkeagoa

Baldintza honek arlo sozial eta kulturalari lehentasuna emotea daukie helburu. Horregaitik, urteko kuota jeistea ebatzi dau Udalak. Urteko kuota 4.000 euro (BEZ kanpo) izango da, aurrekoa 8.400 eurokoa zan bitartean. Dana dala, hasikeran 12.000 euro gehiago jarri beharko dira. Horregaz diruagaz eta Udalak ipiniko dauan beste diru bategaz konponketak egingo ditu Udalak Herriko Bentan.

ZEANURI

Udalak aisialdirako begiraleen lan-boltsea sortuko dau

Erredakzioa

Antolatu dituan ekintzetan zerbitzua emoteko, aisialdi begiraleen lan-boltsea sortuko dau Zeanuriko Udalak. Dokumentazioa aurkezteko epea, aprilaren 29ra arte da. Lan-boltseak urtebeteko iraupena izango dau.

Lan-boltsan sartzeako, 18 urte beteta euki beharko da, aisialdiko monitore titulazioa izan beharko da eta euskerazko 2B maila gaindituta.

Udalekuak

Umeak herriko udalekuan parte hartu dagien aprilaren 22ra arte emon daiteke izena udaletxean. Udalekuak aste betekoak dira eta bat baino gehiago egin daiteke, bagilaren 27tik garagarilaren 22ra arte. Asteko 30 euroko prezioa daukie. Talde bi egongo dira, 2 eta 6 urte bitartekoentzat bat, eta 7 eta 12 urte bitartekoentzat beste bat ludotekan, 09:15etik 14:15era.



ARRATIA

Gabirel Ezkurdia: "Idomeni ezkeraren porrota da"



Gabirel Ezkurdia.

Erredakzioa

Gabirel Ezkurdia politologoa, he-dabideak orokorrean Siriako gerra eta inguruko gerra eta gatazken gainean emoten daben bersinoaren kontra agertu zan aprilaren 7an Igorren emondako berbalan. "Nire ikuspegia, ondo sustraituta dago, baina oso eztabaidagarria da" esan eban. Egoera larri honen atzean kapitalismorik basatiene eta sionismoaren arteko alkarlana dagoala, eta ezkerren porrot egin dauala uste dau politologoa.

Ezkurdiak kolokan ipini ebanzan "terrorismo yihaidista"ren Europako atentaduak eta euren autoretzea. Izan be, Europako atentadu guztien ostean, politika aldaketa izugarriak egin dira, danak segurtasuna handitzeko atxakian eskubideak murrizteko. Egileai jagokienean be, beti hiltzen dirala azpimarratu eban politologoa. Bere

ustez, "bandera faltsuaren" estrategia erabilten da orain arte lortutako eskubideak murrizteko.

Gerra guztien ama: sionismoa

Sirako gerrea ulertuteko, atzera egin behar da denporan. "Gerra guztien ama Israelen sortukerea da. Hau proiektu artifiziala da, ezin da logika politiko batetik ikusi. Judutarrak ez dira nazino bat, ez dira herri bat, erlijino internazionala da judaismoa" esan eban hizlariak.

Nazionalismoak XIX. mendean sortu ziran. Nazionalismo judutarra edo sionismoa Theodor Herzl-ek sortu eban judutarrak herri bat zizala eta euren aberria Sionen egoala esanda. European judutarrak gorrotoa eutseen, diru asko emoten eban lanetan egiten ebelako behar. Horregaitik Hitlerrek poderea hartu ebanean, hitzarmen sekretu bat egin eban sionistakaz. Naziak eta sionistak, "Haavara" izeneko

akordioan, judutarrak Alemaniatik orduan britaniarra zan Palestinara eroatea eta Israelgo estatu sionistea sortzea adostu eban. Eta, Ezkurdiaren arabera, Europako konzentrazio eremu nazietan, Palestinara joan gura ez eban sartu ebezan. Izan be, erlijino judua izan arren euren buruak alemaniar, frantziar, poloniar eta abartzat eukien judutar askok eta European geratu gura eban.

Israelgo estadia 1948an sortu zan. Baina Israel dagoan lekuan palestinarrek egozan, eta estadia sortzeako palestinarrek eta inguru horretako biztanleak bota behar dira. Harrezkerotik, zona horretan (Israel, Palestina, Libia, Jordania, Siria, Iraq, Kurdistan...) gerra eta gatazkak dagoz.

Islama eta yihaidismoa

Judaismoa erlijino internazionala dan moduan, islamismoa be bai; yihaidismoa, barriz, islamaren erabilera politikoari deituzeko sortu dan berbea da. Israel kokatu dan eremuko herrialdeetan, erlijino nagusia islama da. Eta kristautasunagaz gertatzen dan moduan, korriente asko dagoz islamaren barruan, xiiak, suniak eta wahabiak, beste batzuen artean. Batzuek estadiaren laikotasuna gura dabe; beste batzuek, ordea, estadi islamistak (katolizismoan estadi konfesionalak legez). Bigarren horreen artean, hainbat atentadu egin dituan ISIS edo DAESH talde yihaidista wahabia dago. Taldeak Siriako zati bat dauka kontrolpean.

Sobiet Batasuna desagertu zanean, nazinoarteko orden barria sortu zan. Orden barri honetan kapitalismoa da eredu bakarra. Ha-

rezker, ez dago zertan, "giza arpegia daukan kapitalismoa mantentzen (ongizatearen estadiak) eta kapitalismo basatienera jo daiteke".

Mesopotamia inguruko zonalde hori oso estrategikoa da kapitalismoarentzat; izan be, ekoizpen baliabide nagusiak bertan dagoz: erregai fosilak, gasa, drogak... Horregaitik, podere faktikoak interesa daukie herrialde barruko gatazketan (xii eta sunien artean, berbarako). Ezkurdiaren ustez, mendebaldeko herrialdeetako gobernuak, arma eta uniformeak horniduten dabez burruka horreek, zonaldeko herrialde laiko eta sozialetako estadiak porrot egin dagien. Hau izan zan Iraken kasua, barbarako. Horren atzean plangintza bat dago, zonaldeko herrialdeak apurtu, banandu eta zatituteko; eta holan, baliabide horreek mendebaldeko herrialdeak kontrolau dagiezan.

Ondorioak

Ondorio larriak ekarri ditu egoera honek. Mugetan errefujiaduesparruak dagoz eta gerratik igesi Europara etorri guran dabizan errefujiaduak asko dira. Hori dala eta, aspaldi honetan Europak, Siriako gerratik igesi doazen errefujiaduen kontra neurriak hartu ditu Europako atea zarratuz, Europar Batasuna eta Turkiaren arteko itun lotsagarriaren bitartez. Eta Greziako Idomenin dagozan errefujiaduak deportatzen hasi dira.

Azkenik, Gabirel Ezkurdiak Idomeniko irudi batzuk eta nazien konzentrazio eremuetako beste batzuk alderatu eban. Antza izugarria daukie. "Idomeni, ezkerren porrota da" esan eban.

IGORRE

Berriak eta Igorreko dendak mila euroko txeketa zozketatuko dabe



Beinat Anzola, Naiara Zurinaga eta Martxelo Otamendi.

Erredakzioa

Erosi Igorren kanpaina antolatu dau Berriak Igorreko Udalaren babesagaz. Kanpaina honek helburu bikotxa dauka: alde batetik Berria egunkariari babes ekonomikoa emotea, Berrialagunak eginez; eta bestetik, herriko merkataritza bultzatzea. Hori dala eta, apirilaren 13tik 27ra, Berrialagun diran dendetan erosketaren bat egin ezker, zozketa baten parte hartzeako eta 1.000 euroko bonoa eskuratzeko aukerea dago. Zozketan parte hartzeako, bezeroak txartel bat bete beharko dau dendan. Mila euroko bonoa Berrialagun diran dendetan gastetako da. Bonoaren zozketa apirilaren 30ean izango da, arrastiko 20:00etan, Kultur Etxean Zu bai Zu Talentu Lehiaketaren galaren barruan. Eta horrez gainera, egun horretan bertan Berrialagun egin diran denda eta tabernentzako be beste zozketa bat egongo da. Urtean zehar Berria egunkarian publizidadean gastetako 1.000 euro zozketatuko dira Berrialagun barrien artean.

Hogeta bederlatzi komertzio Igorren, daborduko, 29 denda eta

taberna egin dira Berrialagun. Honeetxek dira. Erropa eta oinetako hiru denda: Ezkur oinetakoak, Sein umeentzako moda eta Galanta lentzeria denda. Taberna bi: Gau Lora eta Donibane. Lau janari denda: Edurtzeta janari denda, Beatriz fruta denda, Pino fruta denda eta Lau Haizeetara janari denda. Uleapaindegi bat: Kirru uleapaindegi. Burdindegi bat: Iru Deko burdindegi. Autoeskola bi: Arratia eta Garantxe. Optika bat eta bi Hortz klinika: Olaetxe optika; Agoa hortz klinika eta Naiara hortz klinika. Edova Expert, etxetresna elektrikoak. Bestelako komertzio batzuk: Beasko lurrindegi, Argiker energi gestinoa, AEK, Pintura y Decoración Igorre, Elezarre tailerra, Garden Igorre loradendea eta Bizkor Argi kristaldegi.

Euskerea bultzatzen

Martxelo Otamendi Berria egunkari zuzendaria eta Beinat Anzola Igorreko alkateak aurkeztu eben kanpaina. Euskerazko hedabideen garrantzia azpimarratu eban lehenak. Alkateak, barriz, Igorren merkataritza eta euskerea buztartzeko egindako kanpaina eta bitartekoak ekarri ebazan gogora.

DIMA

Aprilaren 23an ospatuko da Jentilak Diman 2016 Eguna



Igazko ikuskizuneko partaideak.

Erredakzioa

Aprilaren 23an Jentilak Diman 2016 Eguna ospatuko dabe eta egun osoko programea prestatu dabe horretarako dimoztarrak. Gaueko ikuskizuna izango da ekintzarik indartsu eta deigarriena, antolatzaileen arabera.

Eguerdian jentilak adarra jotzen eta narraz jantzita agertuko dira herriko plazan ordu batetan, ikuskizun bisual eta ozena eskeiniz. Ostean trikitxea eta adarren soinuakaz tabernaz taberna ibiliko dira eguna alaitzen. Antolatzaileak herritarri baseritar

jantzita etortzeko eskatzen deutsee.

Arrastiko ekitaldiak seiretan hasiko dira. Hiru ekitaldi egongo dira: umeentzako bi eta helduentzako bat. Lau eta zazpi urte bitarteko umeai ipuin mitologikoak kontauko deutsez ipuin kontalariak ludotekan, eta 8 urtetik gorakoai Liburutegian. Ordu berean helduentzako ipuin mitologikoen katalogoa aurkeztuko dabe batzargelan.

Arrastiko zazpiretan beste ekitaldi bi hasiko dira. Umeentzako adarra jotzen ikasteko tailera egongo da frontoi txikian. Eta ordu berean Li-

burutegian Inmakulada Kortazarrek "Sorginkerietatik bedarren erabilera" izeneko berbaldia emongo dau. Bertan, osasunerako bedar erabilgarriak zeintzuk diran eta zertarako erabili azalduko dau.

Baina eguneko ekintza nagusia eta jendetsuena gaueko hamarretan hasiko dan Jentilak Diman 2016 ikuskizuna izango da. Herriko leku desbardinetatik pasau ostean herriko pelotalekuan amaituko dan kalejireagaz hasiko da ikuskizuna.

Aurten ikuskizunerako sarrera-bonoa erosi beharko da. Bonoak 5 eurotan dagoz salgai Dimako tabernetan, Igorreko Gau Lora tabernan eta Zeanuriko Jubiladuen tabernan. Sarrera-bonoak zozketa baten sartuko dira eta astegoi baten bateko saria egongo da. Igaz, leku faltaz, jentea sartu ezinik geldituz; horregaitik aurretik erostea gomendatzen dabe antolatzaileak. Sarrera-bonoak etorkizunean ikuskizuna egonkortzeko eta ekonomikoki jasagarria izaten lagunduko dualakoan sortu dabez.

Jentilak Diman 2016ko partaide guztiak dimoztarrak izango dira, guztira 80 inguru. Helburua, herriak mitologian daukan aberastunaren transmisioa herritarren artean egitea da.

ARRATIA

Andren jabekuntza eskolak, ikastaroetatik harago

Erredakzioa

Andren jabekuntza eskolak ikastaroetatik harago doan proiektu bat dala eta andren partaidetza sozial eta politikoa indartzea daukiela helburuzat esan eban Rosa Baltar Ondarroako Bardintasun Teknikariak apirilaren 16an Igorren egindako Andren Jabekuntza Eskolako jardunaldian. Ondarroako teknikariagaz batera, Norma Vazquez, feminismoan eta jabekuntzan aditua, eta eskolen hasikeratik formatzaile izan dana, eta Getxoko Jabekuntza Eskolako ikasle bi be egon ziran euren esperientziak

konpartidu eta eskolen gaineko zailtasunak argitzeko. Izan be, Arratiako Udalak, Mankomunidadeak eta andra talde eta talde feministen sareak Arratiako Andren Jabekuntza eskola ipini gura dabe martxan.

Norma Vazquezek, jabekuntza kontzeptua azaldu eban. Jabekuntza errebeldia handitzea eta zabaltzea dala esan eban, norbanako mailan eta maila kolektiboan. Jabekuntza kolektibo dala eta andra guztien aukerak handitu eta zabaltzea daukala helburu.

Marian Gomez eta Itxaso Astobiza ikasleak, ikastaroak egiten hasi zira-

netik ezin izan dituela itxi esan eben. Proiektu honetan beharrez hasita edo hasteko prest Arratia eta Zerberio berrogei andra inguru batu ziran Igorren.

Ikastaroak baino gehiago

Jabekuntza eskolak gizarte inpaktoa eragiten daben feminismoaren tresnak dira. Eskolok sarean dagoz eta Arratiako be, martxan dagoanean, Bizkaiko sarean sartuko dala esan eban Miren Urresti Mankomunidadeko Bardintasun teknikariak.

Proiektua zaindu egin behar da eta markoa ondo zehaztu programazioa egin aurretik eta behar hori guztia egiten hasteko, apirilaren 29an, arrastiko 18:00etan, Igorreko Kultur Etxean batuko dira parte hartu gura daben andra guztiak.

Gure ikastetxeak
Euskalduna kalidadezkoa herrikoia

JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	Ikastola Arratia HI Tel.: 94 673 90 65 Artea
Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima	Arratia BHI Tel.: 94 673 62 37 Igorre
Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre

Haur Hezwuntza
Lehen Hezwuntza
Dorrigorrezko Bigarren Hezwuntza
Batxilergoa
Hezwuntza Zuzendaria
2 urteko 18a

SAHARA

Lemoatik Saharara

Saharako errefujiaduen bizi-baldintza gogorak eta honen aldaketaren inguruan esperantza gitxi islatzen dabean arpegiak hunkituta itxi gaitue; 9 egun nahikoak izan dira herrialde honen sufrimentua sentiduteko.

Mariam Abdi, Begoña Barroeta, Ane Goienetxe eta Rut Rodriguez

Aspaldian buruan bueltaka ibilitako biatzea egin dogu, Saharako errefujiaduen kanpalekuetako errealitatea gure azalean bizi eta sentiduteko. Kuriosidade hau apurka-apurka hazten joan zan, eta urteak aurrera egin ahal, behin eta barriro gure barne proiektu honetaz berba egin ostean, data zehaztu eta plana martxan jarri genduan. Helburu nagusia errefujiaduen momentuko egoera ezetutea eta ahal dan neurrian gure laguntza osoa eskeintzea izan zan hasikeratik. Zelan edo halan bete dogulakoan gagoz.

Bertara joateko autobus eta hegazkin bileteak erostez gain, bisa eta errefujiaduen kanpalekuetarako sarbide-eskaera berezia eskatu eta bete behar izan genduzan. Laguntza-materiala eroatea beharrezko ikusten genduan hasikeratik (eskola materiala, medikamentuak, elikagaiak, higienerako produktuak...) eta horregaitik herritar zein ezagunen artean mezua zabaldu genduan. Jasotako laguntzea ikaragarria izan zan, ez genduan holangorik espero. Material bilketea egiteko kaja bi jarri genduzan (Lemoako eskolan eta Karabie Gaztetxean);

horrez gain, Lemoako gazte talde batek be, euren kabuz dirua eta materiala bilduten lan handia egin eban. Aitatutekoa da norbanako asko be hurbildu jakuzala euren borondatea emonaz. Ekimen honetan partaide izan zarien guztioi gure esker ona heldu arazo gura deusuegu, baita Saharako eskola, ospitale eta familiarako kideen agotik; laguntza txikia iruditu arren, bertan bizi daberen egoera latzean balio handikoa dalako.

Hara joandako lagun-taldeko kideetako bat Saharako kanpalekuetan jaiotakoa izanik, bere familiaragaz igaro genduzan egunak, hango bizilagunen egunerokotasuna bertatik bertara ezetuz. Martiaren 25eko goizaldean Lemoatik urten, eta egun osoko biatzea egin eta gero, hurrengo eguneko goizaldean Argeliako lurraldean dagozan Saharako errefujiaduen kanpalekuetara heldu ginan. Lehenengo momentutik nabaritu genduan familiararen harrera beroa eta prestutasuna.

Maletetan eroandako laguntza guztia antolatu ostean, gune desbardinak bisitatu genduzan bertara eroandakoa banatuz: Haur Hezkuntzako zentrua, Lehen Hezkuntzako eskolea, ospitalea, farmazia, familiarak...

Haur hezkuntza eta Lehen

Hezkuntzako eskolak egun desbardinetan bisitatu genduzan, adin tarte bakotxarentzat egokitutako materiala eroanez. Aurretiaz hango irakaslegoagaz berba eginda, ekintza ugari planteatu genduzan: murala, kareta, arpegiak margoztu, globoen apainketea, kanikak, pulserak, kanta-herrikoiak abestu, jolas kooperatiboak, eta abar. Giroa alaituteko gozokiak banandu genduzan eta umeak abesten eta jantzan ibili ziran, pozik. Eskolako zuzendariak euren hezkuntza sistema zelangoa dan azaldu euskun, eta guk daukagunagaz alderatuz nahiko antzekoa dala ondorioztatu genduan (irakasgaiak, ordutegia, ebaluazio-sistema...). Desbardintasunen bat aitatutekotan, klase bakotxeko ikasle kopurua izango litzateke, izan be, adin-tarte guztietan 35 ikasle inguru dagoz irakasle bakar bategaz.

Bailarako ospitalera be hurbildu ginan, bertako farmazian hemendik eroandako medikamentuak ixteko. Esan beharrekoa da ospitale honetan Mundu bat alkarteak laguntzen dauala baliabide personal eta materialakaz, Bizkaiko Foru Aldundiak finantziatuta. Hezkuntzan legez, ospitaleko zerbitzuak debaldekoak dira: medikuen arretea eta botikak. Errefujiaduen kanpalekue-



Etxebizitzak.

tako ospitalera botikak kanpoko laguntzen bitartez soilik sartuten dira (GKEk edota alkarteak eroandakoa edo norbanakoen laguntzak). Nahiz eta hemetik zein kanpotik jasoten daberen laguntzea nahiko handia izan, bertakoen beharrianak asetuteko ez dirala nahikoak azpimarratu gura dogu, batez be tresneria eta langileai jagokienean.

Lanbideai jagokienez persona gitxik daukie bertan lan egite-

ko aukerea. Kanpamentuetako langileak gehienbat irakasleak, medikuak, erizainak, poliziak eta denda txikiko dendariak dira. Kontutan hartutekoa da han ez dagozala hemen daukaguzan moduko lan baldintzarik ez antzeko ezer. Hango beharrianak etxeko gauzak eta umeak zaintzea dira. Horregaitik, gazte askok errealitatea aldatu guran, formakuntza ahalik eta handiena izateko hainbat kurso edo ikasketa lantzean dabere-



Tearen errituala.



Rut Rodriguez, Begoña Barroeta eta Ane Goienetxe Haur Hezkuntzako umeakaz.



Lehen Hezkuntzako umeakaz.



Errefujiaduen kanpamentuan Rut Rodriguez, Begoña Barroeta, Ane Goienetxe eta Mariam Abdi (Agüeinii).

eta honeek egiteko Aljeriara joan behar izaten dira.

Herri bat ondo ezetuteko bere kulturea ezetu behar da. Jakin behar da zelan elikatuten diran, etxeak zelan eraikiten diran, familia zelan egituratuten dan, zein erritu dagozan, janzkerea zelangoa dan, musika herrikoa, jaialdiak zelangoak diran... Guk, zorionez, hau danau ezetu eta biziteko aukerea izan genduan asteen zehar. Jatekoaren aldetik, adibidez, kus-kus izeneko plater famadua prestatu euskuen, okela eta barazkiak lagundutako arroz plater gozoa. Honegaz nahikoa ez, eta gameluaren okelea be pare bat bider jan genduan (hango ezkontzetan ohiturea da animalia honen okelea jatea). Ezin da aitatu barik itxi tearen errituala. Familia guztia batera egoteko eta

berba egiteko momentua izaten da, batek hartzean dau tea prestatzearen ardurea. Normalean egunean zehar baten baino gehiagotan egiten dabe, goiz partean bat eta arrastian beste bat.

Saharako herritarren kulturea gehiago ezetuteko, euren jaialdi garrantzitsuenetako baten izan ginan, ezkontza baten, konbidau moduan. Han ikusi genduan eurentzako be musikeak garrantzia handia daukala, gorputza mobidutako eta giroa alaitutako modurik egokiena dalako.

Gerora begira...

Gure kabuz burutu dogun ekimen hau ez dogu bertan behera itxi hona etorteagaz batera. Esperientzia honek aurrera jarraitutea gura dogu, han ikusi eta ikasitakoa kontuan hartuta nondik

norakoak gure artean adostu. Badaukagu zeregina, baina batez be, euregandik gehiago ikastea toketan da, bai persona moduan, baita herri moduan. Sahara herria burrukearen, erresistentziaren eta duintasanaren lezino bat da. Ikusi dogu hondar gainean ezin dala lurrik landu, ezin dala landatu, baina hainbat balore finkatu daitezke, hango sirokorik bortitzenak be eraitsi ezingo leukezanak. Jaima barruan dana desbardina da, ez dago gauza materialik; bizitasuna, maitasuna eta bakea dira sentiduten diranak. Hainbeste kendu eutsien aspaldi, bildurra be galdu ebela. Baina inoz ez dabe galduko euren lurretara bueltetako gogo eta itxaropena.

Saharako biaje honetako argazki gehiago www.begitu.org webgunean topau zeinkiez.



Auserd-eko ospitalea.

Said Hamma-ri alkarrizketea



dagoan basamortura joaten naz denporaldi batzuetan. Bertan gameluak zaindu eta hazten dodaz, gero familiako kideak elikatu ahal izateko, honeen esnea eta okeleagaz. Berez, ez da lanbide bat, ez deustelako ordaintzen. Baina familia aurrera eroateko laguntza txiki bat da.

Ze baldintza behar ziran kanpamentuetatik migratzeko?

1991-1992. urteko su-etena gertatu arte, ez zan inor atzerriara joan, danak gerran eta askatasuna lortzean zentrauta egozalako. Su-etengaz batera, askatasun promesea etorri zan. Horregaitik, Aljeriak itxitako lurretan geratu ginan, erreferenduma egiteko esperoan. Baina urteak pasau ahala, erreferenduma aurrera ez joiala ikusita, eta lanik ezta diru-iturririk ez geunkan lez, beste urtenbide bat topatu behar izan genduan. Familiako kide bat kanpora bidaltzen zan, kanpotik lagundu ahal izateko. Espainiako kolonialismoan jaiotako kidea izatea zan baldintzetako bat, Espainiako papelak eukazalako. Nahiz eta bide luzea eta zaila izan, baldintza horrek bidea errezten eban.

Aljeriako lurretan egonda, euren legeak eta ohiturak jarraitu behar dozuez?

Ez. Nahiz eta argeliarrek lur zati bat itxi, askatasuna daukagu kanpamentuetan gure ohiturak eta legeak jarraituteko. Baina hortik kanpo, Aljeriako legeak jarraitu behar doguz.

Badaukazue erreferenduma egingo danaren itxaropenik? Zer aldatu behar da hori gertatzeko?

40 urte pasau ondoren, gehiegizkoa irudituten jata erreferendum kontzeptua Nazio Batuen menpe egotea eta oraindino ez dala ezer egin ikustea. Nire ustez, giza eskubideen gainetik beste interes batzuk daukiez. Betidanik urtenbide bi egon dira: danon artean konpontzea edo barriro be armak hartutea. Azken urtenbide honegaz ez gagoz ados, eta ikusi da urte guzti honeetan basamortuaren erdian itxaroten gagozala, bakezaleak garala. Itxaropenean bizi gara, eta nahiz eta egoera txarrean bizi, horrela bizitea aukeratu dogu sakabanatuta bizitea baino gurago dogulako. Gure lurra dana defendatu gura dogu.

Orduztik hona zelan egin dau aurrera zure familiak? Lanbidea aurkitzeko aukerarik izan dozu?

Saharako alderdi liberatuetan

MENDIA

Zeberio Harana ibilaldi luzerako izena emoteko epea zabalik dago

neetan emon daiteke izena maiatzaren 14ko Zeberio Harana mendi martxan parte hartzeako. Martxeak 48 km.ko luzerea dauka eta 3.200 m.ko desnibela, eta Euskal Herriko iraupen luzeko ibilaldien zirkuiturako baliagarria da.

Partaideak Zubialde plazatik urtengo dira goizeko 07:00retan eta hamabi ordu daukiez ibilbidea egiteko. Ez da lasterketea. Horregaitik, martxea egiteko gitxieneko denporea be badago: sei ordu behar izango dira gitxienez proba amaituteko. Hamazortzi urte bete ez dabenak ezin izango dabe parte hartu martxan.

Zeberio Harana martxearen ibilbidea hau da: Zeberio (125 m.), Murga (606 m.), Piku Bikotz

(616 m.), Garaigorta (662 m.), Aibelabe (638 m.), Arrugaeta (669 m.), Untzeta (770 m.), Artanda (550 m.), Upo (573 m.), Tontorrandi (522 m.), Mandoia (638 m.), Argiñaoko Atxa (524 m.) eta Zeberio (125 m.).

Amaieran dutxa zerbitzua egongo da Zubialdeko frontoian, eta ibilaldia amaitzen daben partaide guztiak opari bana jasoko dabe.

Izen emotea

Modu bi dagoz izena emoteko. Maiatzaren 6ra arte interneten bidez, Runedia edo Austarri Mendi Taldearen webgunean sartuta, eta partaide kopurua 300era ez bada heldu, egunean bertan be emon daiteke izena goizeko 06:00retatik 06:30ak arte. Aldez aurretik egin ezker, 10 euro pagau beharko dabe federauak eta 13 federauta ez dagozanak; egunean bertan, barriz, 13 eta 16 euro, hurrengoz hurrengo.

MOTORRAK

Lehenengo podiuma Zuazorentzat**Irati Urien**

Hilaren 10ean Elgoibarren izan zan Euskadiko Txapelketako Enduroko bigarren proba. Proba gogorra arratiarren esanetan, nahiko tekniko. Jon Zuazok bere lehenengo podiuma egin eban bigarren postuagaz Junior Trofeo kategorian. Asko jota hirugarren egitea espero ebala kontau deusku igorretarrak, "bigarren egin nebala jakin nebanean sorpresa itzela izan zan, oso pozik nago, hurrengorako gogoagaz orain". Kategoria bardineko Asier Zugazagak ostera, suerte txarra euki eban, lesionau eta karrera bertan behera itxi behar izan eban. Senior Trofeo kategoriari jagokonean, bosgarren gelditu zan Di-

mako Iban Ibarra. Bi beteranoak bata besteagandik hurbil ibili ziran, bigarren egin eban Josu Gorospek eta laugarren Pedro Gorospek Beteranoren kategorian. Uxuen (Nafarroa) daukie Enduroko hurrengo zitea motor-dunak, maiatzaren 15ean.

**Jon Zuazo podiumean.****Erredakzinoa**

Maiatzaren 6ra arte, Runedia edo Austarri Mendi Taldearen webgu-

begitu

arratia ubide zeberio

ez da debalde



"Albait gehienok apur bat emon daigun gitxi batzuk dana emon ez dagien".

Izan zeu be Begitu-laguna!

MOTORRAK

Motorrak motore

Gaztetatik dabiz Pedro eta Josu Gorospe anaiak txirringa biren gainean. Pasino eta afizino, motor hotsik ez da faltauko euren bizimoduan.



Pedro eta Josu Gorospe anaiak.

Irati Urien

Nozdik motor gainean?

Josu Gorospe: Gitxi gorabehera hamalau urte neukazanetik.

Pedro Gorospe: Ni hamazazpi urte ingurugaz hasi nintzan. Lehenengo Vespa bategaz eta hortik aurrera trialeko motorra eta gero enduroko motorragaz.

Zelan animau zinen konpetiduten hastera?

J.G.: Lehenengo Pedro hasi zan, ni handik lau bost urtera.

Zenbat motor euki dozuez urte honeetan guztietan?

J.G.: Urte bira kanbietetan dogu motorra. Vespa, Fantic, Kawasaki, KTM, beste KTM bat, Suzuki, Yamaha, KTM,

beste KTM bat... asko (barre egiten dau). Nahiko luzea da zerrendea. Orain dala urte pare bat motokros egiteko erdi bana erosi genduan bat, baina lar kantsagarria zan eta gero nik beste bat erosi neban.

Euskadiko Enduro eta Cross Country Txapelketeagaz zabizie orain, beteranoetan. Bata ez bada bestea, beti podiumean edo inguruan zagozie. Zelan ikusten dozuez aurtengoa?

P.G.: Apurtxo bat flojo. Flojo ez baina...

J.G.: Entrenamentu gitxi.

P.G.: Bai, hori pasetan da. Eta atzetik datozenak be fuerte datoz.

J.G.: Zaharrak gara gu... Batez be ez daukagu ondo preparentako lehen

besteko denporarik.

Enduro eta Cross Country. Ze modalidade gurago?

J.G.: Cross Countrya da gehiago "buruz buru" esaten dana; bestea non dagoan, non datorren... ikusten da. Enduroan adibidez basotik buelta egiten dozunean bakarrik zoaz beti, norbera norberaren kontra. Publikoarentzat erakargarriagoa da Cross Countrya, gehiago ikusten da, lehiakorragoa da igual. Nik gurago dot enduroa, eta Pedrok be bai. Politagoa da piloto batentzat.

Zenbat denpora entrenetan dozue?

P.G.: Motorrean ordu bi gitxi gorabehera astean. Gero bizikletea, gimnasioa edo dana dalakoa, fisiko apurtxo bat egiten dot.

J.G.: Ni astean baten ibiltzen naz, ordu pare bat. Atzenean umeakaz eta, ez daukat hainbeste denpora eta ahal dodana egiten dot.

Esan leike nahiko kirol karua dala, ezta?

P.G.: Bai, sano.

J.G.: Putzu bat da. Zuk euro bateko txanponak bota, bota eta bota, eta bete ez, egundo ez da beteko. Baina esan behar da motorren mantenimentua guk geuk egiten dogula. Mekanikea derrigor jakin behar da.

Herri txiki, infernu handi programan hainbeste motordun agertu zinien. Badago kanterarik Arratian?

J.G.: Bai baina programarako, asko, Arratia ingurutik etorritako gazteak ziran.

Konpetidu dozue inoz Espainia mailan?

J.G.: Lasterketak nahiko urrin izaten dira normalean: Galizian, Andaluzian, Katalunian, Madrilan...

P.G.: Nik behin Espainiakoan hartu neban parte. Gordexolan izan zan. Diru asko behar izaten da. Egun bi egiten behar izaten dira etxetik kanpo, eta guk ez daukagu dirunik holan ibiltzeko.

Karrera batzuk be antolatu dozuez Arratian. Gehiago egiteko asmorik?

J.G.: Bai, lehenengo Alzustan egin genduzan bi, 2009an uste dot; beste bat Igorren, Ubetxagan eta atzenengoa 2011n Ziarrustan, Dima. Besteren bat antolatuteko asmoa badaukagu. Lekua badago eta asmoa be bai, denporea eta jentea behar dogu hori dana aurrera eroateko.

Euki dozue maisurik?

J.G.: Ez. Gehienbat ikasi doguna bideoetatik izan da, bertan ikusten diran detaileak eta kopieta. Maisurik ez dogu euki.

Eta zuek, izan zarie inoren irakasle?

J.G.: Ez, maisu ez, baina igual besteak baino apurtxo bat gehiago jakin dogu eta esan egin deutsegu hau holan egin beharko zeunke edo bestetara... Baina gero bakotzak ahal dauan moduan egiten dau.

Moto Verde agerrian be agertu zan bietako bat. Zelango esperientzia izan zan ha?

P.G.: Neu izan nintzan, Josuren motorragaz. Anaiak motorra erosi eban eta dendakoak Moto Verdekoak deitu eutsela esan eutsan erreportaje bat egiteko. Josuk denporarik ez daukala eta neu joango nintzala esan neutsan.

Ze asmo edo helburu daukazue hemetik aurrerako? Konpetiduten segiduteko asmoa?

P.G.: Momentuz bai, ahal badot bai. Hori daukat buruan eta egin egin behar dot.

J.G.: Gura bai, gura dot baina ikusiko da, ez noa ezer esaten.

Nor da biotatik onena? Badago lehiarik zuon artean?

P.G.: Onena bera, Josu. Lehia bai, beti dago zoezer.

J.G.: Onena ez, ni azkarragoa naz baina bera konstanteagoa da. Momentu honetan nahiz eta karrerak nik hobetotxoago egin, bera ni baino hobeto dabil.

FUTBOLA

Arratiako neskak bigarren eta mutilak jaitsiera postuetan

Erredakzioa

Arratiako andrazkoen taldeak atzenengo lau partiduak irabazi ditu eta bigarren jarraitzen dau sailkapenean Gasteizko Neskak liderrengandik 3 puntura. Apirilaren 16an jokatu eben atzen neurketea eta arratiarrak 1 eta 3 irabazi eben Aurrera Vitoria taldearen kontra. Aurreko emoitzak honeek dira: martiaren 19an, Arratia 2 Barakaldo 0; apirilaren 3an, Berriotxo 0 Arratia 3, eta apirilaren 10ean Eloorrio 0 Arratia 1. Hurrengo partidua Añorga B taldearen kontra jokatuko dau Arratiak Igorren.

Gizonezkoen egoera ostera sano desbardina da, taldea jaitsiera postuetan dago eta. Arratia Futbol Taldeko zuzendaritza dei berezia egiten dabil jokatuteko gelditzen diran partiduetara jentea animetan hurreratu daiten. Apirilaren 16an jokatu eben atzen neurketea 2 eta 1 galdu eben Sondika taldearen kontra. Hurrengo partidua Erandioren kontra jokatuko dabe gizonezkoak Igorren.



Arratia Futbol Taldeko neskak. Argazkia: Javi Urola.



ARTEAKO UDALA

**ARTEAKO ERAIKIN PUBLIKO, KALE, ESPALOI
ETA ARKETEN MANTENURAKO LANPOSTUA
SORTZEAKO ESKEINTZA PUBLIKOA**

Sei hilabete, gehi lau
urte luzatzeko aukereagaz

**ARTEAKO KALEEN GARBITASUNA, JARDINEN
ETA BIDEEN MANTENURAKO LANPOSTUA
SORTZEAKO ESKEINTZA PUBLIKOA**

Sei hilabete, gehi lau
urte luzatzeko aukereagaz

• Proiektuak aurkezteko atzen eguna BAOn
argitaratzen danetik 20 egunera

• Pliegoak www.artea-udala.org helbidean dagoz

BERTSOLARITZEA

Hiru arratziar Bizkaiko
Bertsolari Txapelketako
Udabarri fasean

Erredakzioa

Aprilaren 10ean abiatu zan Bizkaiko Bertsolari Txapelketea, formatu barriagaz. Aurten fase bat gehitu jako, udabarriko fasea eta fase honetan 56 bertsolarik emon dabe izena. Udabarri fasean, parte hartzaile guztiak, finalistak kenduta, batera eta egokitzen jakien plazan kantauko dabe. Holan,

Igorreko Illart Gumuziok Erandion kantauko dau apirilaren 23an, Iñaki Iturriotzek hurrengo egunean Ondarrun eta Arantzazuko Igor Menikak maiatzaren 22an Getxon.

Orain arte, Eskualdeko Txapelketak jokatu ziran udabarrian eta horreetatik sailkatzen ziran bertsolariak udagoienean jokatu ziran Bizkaiko Bertsolari Txapelketara. Orain, eskualdeentzako bestalako ekimenak pentsatu eta



Bertsolari Txapelketako aurkezpena.

prestatu dabez antolatzaileak eta Bizkaiko Bertsolari Txapelketari

udabarriko fasea gehitu jako. Fase honetan bederatzi saio egingo dira eta puntuazinoz sailkatuko dira bertsolariak udagoieneko fasera. Finalurrekoetan, 2014an finalista izandakoak sartuko dira eta finala abenduan jokatu da.

Antolakuntza

Txapelketaren antolakuntzan jente askok hartu dau parte. Bertsolariak kantuan egiteko, aurretiaz lan handia egin behar izaten da, eta horretarako, Bizkaiko Bertsolare Elkarteak talde teknikoak osotuten ditu dana behar dan moduan joan daiten. Illart Gumuziok talde antolatzailean hartu dau parte eta Iñaki Iturriotzek komunikazio taldean.

MUSIKEA

Sei kantu mardulek
osotuten dabe Eskean
Kristören azken diskoa

Ezkurrik onenak (Baga-Biga) izenpean bigarren diskoa atera dau Eskean Kristö rock bandak. Sei kantu baino ez, baina atera beharrekoak, lohiak, epikoak, estudioan sartu aurretik ondo landutakoak. AC/DC, Guns' Roses, Black Crows, The Doors eta beste rock talde mitiko askoren eragina onartuten dabe harro arratiarrak.

Erredakzioa

Bigarren disko honetako musika "lakarra" da, Baga-Biga diskoetxe-ko Ritxi Aizpururen arabera. Izan be, abestia indarra emoteko, beldur barik "lohitu" egiten dira arratiarrak, lupetzan sartu, txarrien modura. Pello Artabek, barriz, "errebolber bateko sei bala" moduan definidu dauz *Ezkurrik onenak* diskoko kantuak.

Igaz 50 bat kontzertu jo ebela azaldu eban Pello Artabe abeslariak, eta ondoren, geldialdia egin ebela diskoa grabetako. Bost egunean grabau eben diskoa, baina alde aurretik ondo landuta euki ebezan kantuak. "Inprobisaziorako tarte gitxi itxi dogu. Eta igarten da" dino Artabek.

Diskoa Urdulizko Tio Pete estudioan grabautu dago eta Igor Delgadok ekoiztu, nahastu eta mas-

terizau dau Londresen. Azalaren diseinua Jon Artetxek egin dau.

Kolaboratzaileak

Arratiarrak kolaboratzaile ugari izan dabe euren bigarren disko honetan. Kokein taldeko Zaloa Urainek, "Otso basati" abestian kolaboretan dau. Artaberren ustez, Zaloarena "Euskal Herriko abots onenetakoa da".

Baina Kokeinek ez dau kolaboratzaile bakarra izan *Ezkurrik onenak* diskoan. Arratiako musikarien presentzia handia dago bertan. Vicent Zaragoza edo Asier

Garcia Areatzakoak, barbarako. Luis Iruarizaga abesbatzak be kolaboretan dau kantu baten, eta emoitza "oso epikoa" da Artaberren esanetan.

Eskean Kristö

Pello Artabek (abotsa), Alex Harilok (gitarra), Aritz Ontalvillak (gitarra), Peio Artetxek (bajua) eta Imanol Arresek (bateria) osotuten dabe Eskean Kristö. Arratiako taldeak Banden Lehia musika lehiaketea irabazi eban 2013an eta beste disko bat dauka kalean *Azote kaldüz* izenekoa.




Eskean Kristö taldekoak.

PAILAZOAK

Pirritx, Porrotx
eta Marimotots
Diman

Erredakzioa

Dimako Udalak eta Guraso alkar- teak antolatuta, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak, *Amalur* ikuskizuna eskeiniko dabe maiatzaren 13an, arrastiko seiretan, frontoian. Sarrerak erosteko, hilaren 26an Diman erroldatutakoak, eta 27an interesa daukien beste guztiak informaziozino bulegora jo beharko dabe 17:30etik 19:30era bitartean.



Bizkaifisios SLk
bi zentro ditu
Fisioterapia
Zentroa
Igorre
Elexalde 4
Telefonoa 94 631 55 08
Andra Mari
Klinikea
Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1 Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64
www.bizkaifisios.com

belagorri
mediku naturista
argitzeko terapia
kosmetika naturala
elkagai biologikoak
zelakoentzat elkagaiak
estetiziana
Zamakoa, 9 - 48960 Galdakao
94 600 21 12 - 94 600 87 56
L. Agirre, 9 - 48140 Igorre
94 631 14 39

ARA OTZ
Lanegunetan O Jabetzen!
Pierro Ugarena 2. pl. - Adoski Oina - Pribata
www.arapotz.com

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

RUGBY
TABERNA
•Egin zaitetz bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak
arratiko.zekorrak@gmail.com
http://santxisme.blogspot.com/

arratiako
instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak
Igorreko Industrialdea
Pab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

ZINEA

Komiki animazino batek irabazi dau Luzetu Barik Film Lehiaketea

Erredakzinoa

Aitor Oñederraren *Esan nuen ez nuela inoiz politikaz hitz egingo* komiki animazino lanak irabazi dau Luzetu Barik Igorreko Film Laburren lehiaketea. Arratiako film onenari saria *Jentilen bila* filmak jaso eban, Gotzon Aurrekoetxea,

Txumuluxueta alkartea eta Dimako herriaren lanak. Gazteen kategorian, barriz, *Ez-beharra* izeneko filma izan zan saritua. Hogota Produkzioak, Bediako Asier Lekue Zabalak eta Lemoako Jokin Uriarte Alkortak egin dabe langabezia umorez kritiketan dauan film hau. Umeen kategorian, sari bi ba-

nandu ziran. Irabazlea *Aketodul* izeneko izan zan, Igorreko Ludoetekako umeak egindakoa. Bigarren saria *Harri magikoak* film laburrentzat; Maialen Zuazo, Joane Bilbao, Aimar Arauzo, Iradi Gomez, Kattalin Zuazo, Malen Bilbao eta Libe Arauzoren lana.

Sari banaketea

Sari banaketa ekitaldia Illart Gumiuzio aurkeztu eban. Apirilaren 9an izan zan eta ehun persona inguru batu ziran Kultur Etxean filmok ikusteko.

NAFARROAREN EGUNA

Zeberioako Untzuetan mendian Nafarroaren Eguna ospatuko da

Erredakzinoa

Untzuetan Nafar Gaztelua lantaldeak antolatuta, Nafarroaren Eguna ospatuko dabe apirilaren 24an Untzuetan mendian. Hori dala eta, ekitaldia egingo dabe antolatzaileak. Aurretik, mendira igon ostean, hamaiketako herrikoia izango da Untzuetan bertan, txalaparta eta albokeagaz lagunduta. Ondoren, aureskua eta bertsolarien txandea, ekitaldia eta, amaitzeko, herri bazkaria Ugaon.

Untzuetan mendian gaztelu nafar baten aztarnak dagoz. Lantaldekoen arabera, orain dala mila urte inguru, XI. mendean, Nafarroako Erresuma indartsua zan sasoiari, gaztelu bat eregi zan Untzuetan mendien tontorrean. Ondorengo mendeetan, betekizun garrantzitsua izan eban gazteluak eta bertan izandako gertaerak eragin handia izan eban Euskal Herriaren historian, eta inguruko herrietan: Orozko, Arakaldo, Arrankudiaga, Zollo, Ugao eta Zeberion, hain zuzen be.

Hamar mende geroago horren barri jente gitxik daukala ikusita, orain dala lau urte, lantaldea sortu zan. "Untzuetan Nafar Gaztelua lantalde guztiz zabal eta Untzuetan mendien inguruko herri guztietako lagunak bildu ginan bertan. Nafarroa Bizirik taldeagaz hartu-emonetan ipini ginan eta alkarlan

emonkorra burutu dogu eurekaz" azaldu dabe taldekoak ohar batez.

Egitasmoa

Taldeak informazinoa biltzeari ekin deutso, landu eta herritarrai bideratzeko; berbaldiak be emon dabez Nafarroako Erresuma eta Untzuetako gazteluaren gainean. Gazteluaren eta bertan erabilitako guda tresnen erakusketak be egin dabez Untzuetan Nafar Gaztelua taldekoak. Horretarako, maketak, panelak eta abar prestatu dabez.

2014ko apirilaren 6an, nafar gaztelua bertan izan zala adierazoten dauan ikurra ipini zan Untzuetako tontorrean. Egun horretan Untzuetara igoyerak antolatu ziran inguruko herrietatik urtenda eta ekitaldia eta ospakizuna egin ziran bertan.



URTEURRENA

Urteurrena ospatuten jarraituko dabe Kiñu Gaztetxean

Erredakzinoa

Kiñu Gaztetxeak urte bi bete ditu apirlean eta ospatuteko hainbat ekitaldi antolatu dabez hile osoan zehar. Urteurren jaia apirilaren 23an, zapatuan, izango da eta egun osoko egitaraua prestatu dabe. Bezperan, *Gure kabuz ala hil* dokumentala eskeiniko dabe eta hilaren 29an, MobyDick abeslariaren kontzertu akustikoa izango da.

Hilaren 23an, goizean puzgarriak egongo dira umeentzat Gaztetxeako atzeko bedartzan. 15:00etan bazkaria egongo da Gaztetxean. Eguneko ekitaldi nagusia, dana dala, gaubeko kontzertuak izango dira. Desore, Ze esatek eta Patrol Destroyers egon-

go dira hamarretatik aurrera Kiñun. Desore taldea Banden Lehiako finalera heldu zan igaz. Kontzertuak bost euroko prezioa dauka. Kontzertuen aurretik, sieretan, poteoa egongo da herrian zehar Fave de fuca Elektrotxarangeagaz.

Dokumentala eta kontzertua

Hilaren 22an, 19:30ean, *Gure kabuz ala hil* dokumentala emongo dabe eta ondoren gaia eztabaidatuko dabe bertaratutakoak. Dokumentalak lanaren prekarizazioa hartzean dau abiapuntutzat, "kapitalismo logikatik kanpo" Euskal Herrian egin diran autogestioan oinarritutako esperientziak erakusteko. Egileak gazte mobimentuaren alternatiben

inguruko eztabaidea sortu gura dabe. Urteurreneko azken ekitaldia, MobyDick abeslariaren kontzertua izango da hilaren 29an iluntzeko 20:30ean. Abeslari algortarrak, *Cotard Delusion* izeneko iraupen luzeko diskoa kaleratu eban 2013an, sano kritika onak jasoz.



DUNBA

Ijitoak Euskal Herrian

Zeberioako eskolako 5. eta 6. mailako ikasleak

Apirilaren 8a, barikua, Ijitoen Nazinoarteko Eguna izan zan eta horregaitik Zeberioako 5. eta 6. mailako ikasleak buruz egingo dogu berba. Hori dala eta, testu honetan euren hizkuntzak, ohiturak, nondik datozen... azalduko dogu.

Historia

Ijitoak Indiako ipar mendebaleatik datoz, Punjabetik. India itxita XI. mendean Afganistan, Iran, Armenia eta gaur egungo Turkiarantz zabaldu ziran.

Eta inguru horretatik alde egin behar izan eban gerrak izan zirako.

Ijito izena egiptianotik dator, Egiptotik etorri ei zirako. Baina Rom, Roma, Romani eta Zinga-

ro izenakaz be ezetuten doguz. Baina Euskal Herrian beste era askotara ezetu izan dira: motxai-le, kito, zito, kitano, xino buhame (Txekia Errepublikako Bohemiatik ei etozalako). Iberiar peninsulan XV. mendean sartu ziran, iparraldetik, Pirinioetatik edo Gibraltartetik.

Erromintxela, Ijitoen euskerea

Erromintxela euskera da egitura eta aditzean, baina lexikoa "kalo" da.

Ijitoak Euskal Herrira etorri ziranean, euren hizkera asmatu eban, eta euskaldunak ez eban ulertzen azkar hitzegiten ebelako. Kalo hitzegiten dabenak be ezin dabe erromintxela ulertu.

Galtzean dabilen hizkerea da; zaharrak, larogei urtetik gorako pertsonak baino ez dakie holan hitzegiten, orain erabilten ez dalako.



Ijitoen ohiturak

Ijitoak ohitura asko dabez. Harrietatik ospetsuenetariko bat ezkontza da: egun bi irauten dau eta familia biak konbidatzen dabez. Persona asko batzean dira.

Beste ohitura bat da eskakizunetan neska asko egotea. Erljio-soak dira. Dolu garaian ezin dabe musikarik entzun, tabernetan sartu, baltzez jantzen dira...

Sukaldaritzan asko erabilten dabe koipea, miru belarra, kafea... Musikea maite-maite dabe.

Ijito ospetsuak

Jorge Heredia Maya lehenengo liburu atera eban 1932an *Pener Ocono* poema liburu idatzi eban.

Mateo Maximoff Frantziako idazlea. Frantzesez eta kalderashez (Kalo) idazten eban.

Miguel Mendiola, Sevillan jaioa, ingenieritza aeronautikoa ikasi eta NASA lan egin eban.

Juan Manuel Montoya. Lehen osagile ijitoa.

Patxi Ruiz pelotaria, Lizarrakoa.



Ijitoen Nazinoarteko Eguna

Londresen 1971ko apirilaren 8an egin eban Ijitoen Nazinoarteko lehenengo ospakizuna. Harrezkero, egun horretan ospatzen da urtero.

Ijitoak euren bandera, himnoa eta herriaren eskubideen alde burrukatzea proposatu eban.

AGENDEA

APRILAK 18
AREATZA

30era arte, argazki erakusketak Haginan, Hotel Balnearioan, Bixerren eta The Quiet Corner-en.

IGORRE

Hilaren 27ra arte, Erosi Igorren kanpaina.

Maiatzaren 31ra arte, Irakurri, Gozatu, Oparitu egitasmoa.

LEMOA

Hilaren 29ra arte, egindako liburu maileguak, funtsetik kendutako liburu bat izango dabe opari. Udal Liburutegian.

Maiatzaren 31ra arte, Irakurri, Gozatu, Oparitu egitasmoa.

ZEANURI

Hilaren 22ra arte, Zeanuriko udalekuetarako izen emotea udaletxean.

APRILAK 20
AREATZA

19:00etan, errefujiaduen harreraren aldeko taldea sortzeako batzarra udaletxean.

BEDIA

17:30ean, Onditz Mendizabalen Liburu-maleta ibiltariaren hirugarren saioa. 3 eta 11 urte bitarteko umeentzat. Liburutegian.

APRILAK 21
AREATZA

19:30ean, Javi Julio kazetaritzako argazkilariren berbaldia udaletxean.

IGORRE

20:00etan, zine kluba. *Viridiana* (Buñuel, 1961). Lasarte Aretoan.

APRILAK 22

DIMA

Gurutze Gorriak antolatuta, jubiladu eta pensiodunentzako mendi ibaldia. Dima-Indusi-Bargondia-Dima. 10 km.

IGORRE

19:30ean, *Gure kabuz ala hil* dokumentala eta ondoren eztabaidea Kiñu Gaztetxean.

APRILAK 23
AREATZA

20:00etan, Bluegrass Express-en kontzertua The

Quiet Corner-en.

ARTEA

10:00etan, Bidean, kultur dinamika saioa.

BEDIA

10:00etan, familiako urtekerea Mañariako Ontzi Museora.

DIMA

Jentilak Diman 2016. 13:00etan, Jentilen agerrerea

plazan; 18:00etan, ipuin mitologikoak umeentzat 4-7 urte bitartekoentzat ludotekan, 8 urtetik gorakoentzat liburutegian, helduentzat ipuin mitologikoen katalogoaren aurkezpena batzar gelan; 19:00etan, adarra joteko tailerra umeentzat frontoi txikian eta Inmaculada Kortazarren "Sorginkerietatik bedarren erabilera" berbaldia batzar gelan; 22:00etan, II. Jentilak Diman ikuskizuna.



Helduentzako ipuin kontaketea Igorren

Apirilaren 22an, iluntzeko zortziretan, Ines Bengoa ipuin kontalariak helduentzako ipuin kontaketea eskeiniko dau Igorreko Kultur Etxean. Izan be, *Escalofri* izeneko ikuskizunean, ipuin erotikoak biltzean ditu Bengoak. Iosu Lizarragaren musikeak lagunduko dau narrazioa.

*Escalofri*ok plazer erotikoaren historia kontetan dau, hasikera-hasikeratik kontau be, munduaren sorreratik eta sasoi desbardineta ekoerak ekarriko dabez gogora Ines Bengoaren narrazioak eta Iosu Lizarragaren musikeak. Holan, publikoak biaje moduko bat egingo dau "umore, eromen, zentzutasun eta pasinoaren bidez; eta sexuaren plazerre errendiduten garanean sentiduten dogun hotzikara hori sentiduteko aukerea izango dau".

IGORRE

10:30etik 13:00etara, puzgarriak Kiñu atzeko bedartzan; 15:00etan bazkaria Gaztetxean; 18:00etan poteoa Fave de Fuca elektroxarangeagaz heritik zehar; 22:00etan kontzertuak Gaztetxean. Desore, Ze Esatek eta Patrol Destroyers taldeak.

22:00etan, zinea *Pikadero* Lasarte Aretoan.

LEMOA

Lemoako V. Narrazio Lehiaketarako lanak entregatzeko azken eguna.

APRILAK 24
AREATZA

Goheia Parke Naturalak antolatuta, mendi urtekerea. Bikobx-gane-Untzuetatik piku.

DIMA

10:00etan, Ganadu eta Artisautza Azokea. 12:00etan, artzain bakurren erakusketea; 14:00etan, txahalaren zozketea.

IGORRE

17:00etan, zinea *Norman del norte*. 19:30ean zinea *Pikadero*. Lasarte Aretoan.

ZEBERIO

Untzuetatik Nafar Gazteluak antolatuta, Nafarroaren Eguna Untzuetan. 11:00etan, hamaiketako Untzuetan, txapalparta eta albokeagaz; 12:00etan, aureskua, bertsolariak eta ekitaldia; 15:00etan, herri bazkaria Ugaoko Porrexean (Herriko Tabernan). Tikitak Porrexean eta Arrankudiagako Gizarte Etxean.

APRILAK 25

LEMOA

Hilaren 29ra arte, Kiroldegiko programazio barrirako ekintzak probetako aukerea.

APRILAK 26

AREATZA

18:00etan, Gizonentzako Gunea, lehenengo batzarra. Udaletxean.

DIMA

17:30etik 19:30era, maiatzaren 13an izango dan Pimix, Porrotx eta Marimotosen Amalur ikuskizunerako sarrera salmentea Diman erroldatukoentzat. Informazio bulegoan.

APRILAK 27

DIMA

17:30etik 19:30era, maiatzaren 13an izango dan Pimix, Porrotx eta Marimotosen Amalur ikuskizunerako sarrera salmentea Diman erroldatuta

ez dagozantzat. Informazio bulegoan.

APRILAK 28

IGORRE

19:00etan, Jai Batzordearen batzarra. Kultur Etxean.

20:00etan, zine kluba. *Taxi Teheran* (Jafar Panahi, 2015). Lasarte Aretoan.

LEMOA

17:00etan, Familiak Olgetan, ludotekan.

APRILAK 29

AREATZA

17:00etan, Ander Gilenea argazkilarikazetariaren berbaldia eta erakustaldia Ilergia kalean.

IGORRE

18:00etan, Arratiako Andren Jabekuntza Eskolarako batzarra. Kultur Etxean.

20:30ean, MobyDick bakarariaren kontzertu akustikoa Kiñu Gaztetxean.

LEMOA

Maiatzaren 1a arte, Ganzabal Mendi Taldearen urtekerea. Somosierra mta-La Quesera mta. Pico del Lobo (2.274 m.). La Quesera mta-Hontanares. La Buitrera (2.046 m.).

APRILAK 30

AREATZA

Photo Fest amaierako jaiak. Proiekzioak kalean; Vomitando desperdicios-en kontzertua Gaztetxean.

20:00etan, Adrian Fernandez Triño, The Quiet Corner-en.

ARTEA

10:00etan, Bidean, kultur dinamika saioa.

IGORRE

20:00etan, Zu bai Zu Talentu Lehiaketea. Lasarten.

22:00etan, zinea *La habitación*. Lasarte Aretoan.

ZEANURI

Dantzari Eguna. 11:00etan, taldeai harrerea herriko plazan; 11:30ean, kalejireia; 12:00etan, Alardea plazan; 14:30ean, bazkaria (jantziak debalde eta besteak 5€) frontoian; 16:00etan, erromeria herriko txistulari eta trikitilariak; 17:00etan, tailerrak.

MAIATZAK 1

IGORRE

17:00etan, zinea *El recuerdo de Mamie*. 19:30ean, zinea *La habitación*. Lasarte Aretoan

ZEBERIO

20:00etan, zinea *Pride* (2014, Erresuma Batua). Plazako Eskola Zaharrean.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

BIZIKLETEA SALGAI

Focus Black Forest bizikletea salgai. Urkulea: Rock Shox Recon Silver RL 100 mm. Aldagailu eta biela: Shimano Deore XT. Osagaiak: Concept SL. Jantak: DT Swiss. Gurpilak: Mountain King. Barri-barria. 600 euro. 688 602 516 (Mikel).

PISUA SALGAI

Zeanurin, plazan, duplex-a salgai. 100m, 3 logela, komun 2, garajea eta trastelekua. Interesautu egon ezker, 686 495 724 telefonora deitu.

DANERIK

BEHAR BILA

Etxeko lanak egiten dodaz, 08:30etik 16:00ak arte. Kotxeduna. Dimoztarra. Telefonoa 634 438 725.

BEHAR BILA

Delineazino lanak egiten dodaz. CAFen esperientziaduna. Ingeniaria. Dima. Telefonoa 635 207 386.

BAZKIDE BILA

Arratiako euskerazko aldzikariak

bazkideak behar ditu. Interesatuak 649 979 115 telefonora deitu.

PARKING PARTZELA ALOKAIKUAN

Igorren, Lehendakari Agirre kalean, parking partzela bi alokairuan. 30€ bakotzak. 659 395 911.

OPARITZEN DA

Urte t'erdiko artzai txakurra oparitzen da. Telefonoa: 635 207 386.

GARRAIOLARIA BEHAR DA

Enkarguak etxera eroateko garraiolaria autonomoa behar da. Deitu 94 673 60 55 telefonora.


Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Pikadero* filmarako.

Aizpea Etxebarria (Igorre)
Alaitz Olabarri (Igorre)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *La habitación* filmarako.

Arteako Urriburu Batzarra (Artea)
Iker Mendiola (Zeberio)



g Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,


zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 13

urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Agindu. 2.- Amama. Bat erromatar.
3.- Musika nota. Oxigenoa. Emea ez dana. 4.- Bildurtu. 5.- Nikela. Bokala. (Atz.) Izan aditz jokoan. 6.- Usau. 7.- Begiak itxita. Bokala. Pluralgilea. 8.- Bokala. Beharbada. 9.- Gidari.

GOITIK BEHERA

1.- Itsasgizona. 2.- Gozo. Letra bat. 3.- Persona izenordaina. Bokala. Bokala. (Atz.) Idiak geldiarazteko interjekzioa. 4.- Umorerik ez daukana. 5.- Tantaloa. Bokala. Bat erromatar. (Atz.) Musika nota. 6.- Uranioa. Ateburu. 7.- Susmari.



Topau Bizkaiko zazpi jatetxeren izenak.

S	A	X	T	O	R	R	O	G	E
A	R	I	G	E	N	E	A	L	O
R	E	M	U	N	E	T	X	E	A
D	T	O	G	A	G	I	L	O	K
I	X	E	G	A	M	I	N	I	Z
M	O	T	E	L	A	A	B	O	R
E	N	A	N	P	E	G	A	S	A
L	D	I	H	G	R	A	M	E	Z
A	O	Z	E	U	K	Ñ	I	O	A
D	U	R	I	R	S	A	R	A	T
O	S	I	M	E	N	T	A	K	O
R	E	B	A	K	Z	Z	O	R	A
O	S	K	A	I	G	A	Ñ	U	R
M	I	Z	K	D	O	G	E	N	U
A	Z	O	R	E	G	A	N	E	A

AKI MI KO

Kailo



umaan moda
seim
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnos. 94 631 92 96 • seimmoda@hotmail.com

AKESOLO, S.A.
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK
Garbe, 29 Telefonos: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

AKEITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnos 649 86 95 36

NAIARA Hertz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

Orde
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
L. Agirre, 2
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnos.: 94 673 64 25

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK, ETXEBIZITZAK, DENDAK, ISTRIPUAK, BIZITZA...
ABOKATUAK: ZUZ. ZIBILA, KONTSUMO ZUZ., ADMINISTRAZIO ZUZ., INGURUGIRO ZUZ.
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA, ZERGAK, KONTABILITATEA
Tfn. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
94-673-70-87
609-79-40-54

* KIRRU * ILEAPANDEGIA
SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 baxo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 631 92 06

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta eskuzko zain enderez
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefona 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83
e-posta: unozulu@arratia.net

AINARA BEOBIDE ETA AINHOA ARANBURUZABALA

"Gure izena Lavandula da"

Orain dala zazpi bat urte, Ubideko Ainara Beobide eta

Ainhoa Aranburuzabala artisau jaboia eta kremak hasi

ziran egiten alkarregaz, arrastietan, Lavandula sortuz.

Azokatan saltzean hasi eta uste baino eskari handiagoa

izan eben jaboioak. Orain, jaboia eta krema artisauak egin

eta dendetara saldu gura dabez eta Areatzan topau

dabe tailerra ipinteko egokia izan daiteken lokala.

Udagoienean, bertan produziduten hastea espero dabe.

Erredakzioa

Ainara, lorezaintza ikasketak eginda, naturopatia eta dermokosmetikako ikastaroak... betidanik euki dozu argi lanbide hau hartuko zenuela?

Ainara Beobide: Nik danetik egin dot. Haur Hezkuntzako ikasketak be badaukadaz eta danean egin dot behar. Arkauten be egon nintzan ahuntz gaztaia egiten. Orain langabezian nago Lavandulako proiektua aurrera aterateko. Horren aldeko apustua egin dogu Ainhoa eta biok.

Ainhoa, zuk eskarmentua daukazu enpresari moduan, ezta?

Ainhoa Aranburuzabala: Nik enpresa familiar bat neukan, gurasoena. Oilaskoak saltzean genduzan, handizkako salmentan: okelategietara eta dendetara, hain zuzen. Aita jubilau zan eta ebatzi neban neuk hartzea, baina ez jatan gustetan. Han zortzi ordu egiten nebazan, eta lau-bost ordu Lavandularako. Larregi zan. Orduan igaz Ainarari esan neutsan, berrogei

urte bete behar nebazala eta bizimodua aldatu behar nebala. Eta ni prest nengoala lana ixteko eta Lavandulan zortzi orduko lana egiteko. Urrietan itxi neban enpresea eta ordutik langabezian nago. Ikastaro gehiago egin eta proiektu hau martxan ipinteari ekin deusagu.

Zelan hasi zinen alkarregaz beharrean?

A.A.: Ni izatez txantxikuarranaz, oinatiarra, baina orain dala hamabost urte Ubidera etorri nintzan eta Ainara ezetu neban. Antxinatik, amamaren ukenduak eta kremak berreskuratu guran nenbilen.

Ubiden arrastiak oso luzeak ziran, bakarrik nengoan eta hor ibiltzen nintzan jaboioak eta egiten. Ainara ezetu nebanean, honek dana handi egiten dauanez, material piloa erosi ebala esan eustan eta alkartuten hasi ginan jaboioak egiten arrasti pasa. Egia da ikastaroak be egin doguzala gehiago jakiteko, baina inongoko asmo barik hasi ginan.

Lehenengo Ubideko Biran udalxetik esan euskuen, ea postutxo bat ipiniko genduan, Ubideko

gaztaiegaz postu bat ipini behar ebela eta beste zozer be ipintea gura ebela. Ipini genduan eta oso ondo urten zan. Orduan esan genduan, hurrengokoa Oñatin. Eta han be, ikaragarriko jente piloa, lau metroko mahaia... eta itzel urten zan. Horrek animau ginduzan feria gehiagotan gure produktuak saltzean ipiniten. Eta ikasi eta egin. Ikasi eta egin...

Eta orain lokala hartuko dozue Areatzan jaboioak eta kremak egiteko.

A.B.: Printzipioz bai. Ubiden hartu gura genduan baina arau subsidiarioak ez dabe permitiduten. Orduan Ubidetik kanpo urten behar genduan, eta gure filosofiari jarraituz, baserri giroko leku baten geratu gura genduan, gure lanak natureagaz loturea daukalako. Otxandion, Zeanurin eta Areatzan begiratu ostean, Areatzan topau dogu.

A.A.: Gure asmoa ez da denda bat ipintea, kosmetika naturala fabrikatzea baino. Gure bezeroak bedardendak, kosmetika dendak, estetikako zentroak, eta abar izango dira. Denda fisiko txiki bat ipinteko asmoa be badaukagu eta atzekaldean, kristalera bat, Lavandula zelan egiten dan erakusteko.

Asmoa bada dendetara saltzea produzino handia izango da.

A.A.: Ez. Eskatu dogun makinaria artisautzako makinaria da. Hau da, etxean daukagun batidorea kilo bat egiteko bada, guk eskatu doguna hamar kilorako da. Industriak ehun kilotik gora egiteko dira. Baina ahalik eta gehien saltzean saiatuko gara. Ez dago kontraesanik produktu artizanala eta ona izan, eta ahalik eta gehien saltzean. Ez daukagu honegaz aberasteko asmorik, baina bai gure soldata aterateko eta ahal badogu bertan



lana emon, ba pozik.

Igual, gero saltzean dogu piloa eta makinaria handiagoa erosi behar dogu! Baina gure asmoa da inguruko dendetan eta interneten saltzea.

Noz hasiko zarie?

A.A.: Ez dakigu, udagoien honetan edo. Aste honetan (aprileko lehenengo astean) berbatu dogu lokala, baina okupata dago, maitezean librauko da. Gero, arkitektoa sartu beharko da, proiektua egin... eta abuztua tartean dago. Hasi orduko udagoiena izango da.

Ze ezaugarri ditue zuen jaboia eta kremak?

A.B.: Jaboia desbardinak daukaguz. Batea beti da bardina: orioa. Batzuek oliba orioa daukie, beste batzuek almendra orioa.

A.A.: Jaboia bat egiteko ura orioa eta sosa behar da. Azalaren araberako jaboia egiteko orioa aukeratzen dogu; tartan, jojoba, almendra, urra edo larrosa mosketa orioa. Bakotxak bere propie-

dade eta ezaugarriak emon dagoian formulazino bat egiten da. Esate baterako, hidratantea izatea gura badogu mantekak sartzean doguz. Amaituteko, orio esentziak botaten dira ezaugarri eta propietate horreek indartzeko.

A.B.: Arpegirako kremak be badaukaguz eta segun ze azal mota daukaguz, sikua, koipetsua edo mistoa krema desbardinak dagoz. Gorputzerako kremak be bai, eta horreek be hiru motatakoak dira. Ezkontzetarako detaileak be egiten doguz.

A.A.: Eta tailerrak emoten doguz. **Usaina emoteko lorak erosi egiten dozue?**

A.A.: Eskualdeko Nekazaritza Bulegoan alta emonda gagoz. Ainarak lur sail bat dauka eta esplotazino hori erabiltea gura dogu sendabedarrak, eta sukaldaritzako eta bedar aromatikoak ekoizteko. Hazia oraintsu sartu dogu eta denporea beharko da, baina gure estraktuak egiteko landare horreek erabiltea da asmoa.

Arratia
Ubide eta zeberrioko
euskera
eta kulturearen alde

Hamabostero
begitu zeure etxean

Egin zaitez zeu be

Eltxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ateratako produktuak.

Hamabostean behin sari itzelen zozketan parte hartuko dozu.

Zertu Kultur Elkarteak
Berrito Plaza 21, 20112 Artea

Izen-abizenak:
Helbidea:
Herria:
Telefonoa:
E-posta:
Urteko kuota aukeratu: 35€ 55€ 75€

begitu
makinaria artisautza